

Bizitza aktiboa Alzheimerra duten gaixoentzat

2012/11/12

Gaur azaroaren 12an, Donostiako Zientzia Museoak *Bizitza Zientifikoak* izeneko 2. jardunaldia antolatu du. Ekitaldi hau DBHko 3. eta 4. mailako ikasleentzat eta batxilergoko ikasleentzat da.

Asier Aztiriak, Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko ikertzaileak, Alzheimerrari buruz egin dituen lanak aurkeztuko ditu. Imitazioa eta teknologiaren bitartez gaixoaren funtzio kognitiboak estimulatu nahi dira *neuronen ispi*uen estimulazioa eraginez, gaixoak bizitza aktiboa eta independentea eramateko gai izan daitezen. Proiektuak 3 zutabe nagusi ditu: estimulazio bisuala sustatzea (mastekatzea, paseatzea). Mugimenduen analisisa egitea (kalitatea, intentsitatea eta orientazioa identifikatuko dira eta sentsoreak erabiliz neurtuko dira). Azkenik, erreminta interaktibo baten bitartez, egunerokorako planifikazioa egitea.

